

## **ZARAUTZ / Irakurketa saioak haur eta gurasoentzat**

Sanz Enea liburutegiak haur eta gurasoentzat irakurketa saio berriak antolatu ditu, 'Irakurketa Kluba' deritzon saioak. Saio hauek 6-7 urteko (LH1) haur eta gurasoentzako zuzendurik daude. Plaza mugatuak izango dira: 20 haur eta bere gurasoak. Hiru saio egingo dira: urtarrilak 22, otsailak 19 eta martxoak 12, Galtzagorri Elkarteko kideen eskutik. Saio guztiak, ostiraletan, 17:30etan egingo dira Sanz Enean, bakoitza ordu eta erdikoa. Parte hartu nahi duenak urtarrilaren 12tik-20ra bitartean haur liburutegian izena eman beharko du. Galtzagorri Elkartea 1990ean sortu zen. Bi helburu nagusi dituela esan genezake: haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzea eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea. Ekimen hau, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko dirulaguntzari esker egingo da.